

Egunez egun diabetesarekin

Zikloa: 1.a, 2.a eta 3.a

Caia: Eskolan

IRAKASLEA

IKASLEAK



www.fundaciondiabetes.org

Dakizunez, diabetesa duen ikasleak eginbehar jakin batzuk izaten ditu egunero, baita eskola-orduetan ere. Cainera, gerta liteke hipogluzemia edo hipergluzemia ere izatea; orduan, jarraibide batzuk bete behar ditu nahitaez, eta gainerako ikasleek agian pentsatuko dute baimen bereziak edo pribilegioak dituela.

Betebehar horietan "deigarrienak" dira eskola-orduetan zerbait jatea edo edatea (hipogluzemia badu), edo komunera txiza egitera askotan joan behar izatea (oso glukosa maila altua badu).

Komenigarria da, beraz, gainerako ikasleek beharizan eta betebehar horien berri izatea aldez aurretik, iritzi egokia eta zuzena izan dezaten egoera horien aurrean.

COMENDATUTAKO JARDUERAK

IZENBURUA	DESKRIBAPENA	ZIKLOA	ERREF.
Zenbat glukosa du odolean? (1)	Datuak eta grafikoak lantzen	2.a	16
Zenbat glukosa du odolean? (2)	Datuak eta grafikoak lantzen	3.a	17
Kontakizuna	Jardueren denbora-sekuentzia antolatzea	1.a	18
Denbora nire esku	Erloju analogikoa irakurtzen ikastea	2.a	19
Zer egin behar du eta noiz egin behar du?	Taula batean antolatutako datuak erabiltzen ikastea	2.a	20
Aurkitu ezkutuko mezua	Idazketa-irakurketa	1.a	21
Ezkutuko kodea	Idazketa-irakurketa	1.a	22